

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Leandra Otxoa Abarrategi

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1924-2006)*

Aurkibidea

Biografia



Zintak

ARR-002

- **Proiektua:** Arrasateko haur kantak eta jolasak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar - Sarasua Aranberri, Asier
- **Data:** 2004-10-11
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane

ARR-032

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garro, Eneritz
- **Data:** 1996-01-01
- **Iraupena:** 7 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

Pasarteak

1. "Txikitxo polit hori..." kanta

- **Erref:** ARR-002/012
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:14:40. **Bukatu:** 00:15:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

"Txikitxo polit hori..." kanta.

Transkripzioa

Besuen hartuta, gaiñera, hobeto kantetan da, e? Umie besuen dozule emozionau eitten zara.

"Txikitxo polit hori, zeu nere laztana,
katiatu ninddazun libria nintzana.
Libriak libre dira, zu ta ni katigu,
biok biziko gera zuk gura badezu. "

Laztantxo bat emon ta lo. "Ein lo, e? Lo, lo", ta umie lukartu eitten da, e!
Ointxe be bai, e! Hay que ver! Hori kantuori asko gustetan jakue.

2. "Drin, dron corderito de vino..." kanta

- **Erref:** ARR-002/013
- **Iraupena:** 0:00:29. **Hasi:** 00:15:15. **Bukatu:** 00:15:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

"Drin, dron corderito de vino..." kanta.

3. "Atxia motxia.."

- **Erref:** ARR-002/014
- **Iraupena:** 0:00:46. **Hasi:** 00:15:44. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak

Laburpena:

"Atxia motxia ..." umeekin egiteko jolasa.

Transkripzioa

- Umiekin jolas asko eitten auen gurien amak. Neuk be bai.
- Eta zelan da hori?
- Holaxe atzamarrak ipiñi: "Atxi, motxin, pi..." Oin be gurien txikiñek egundoko barriek eitten dittu.

"Atxien, motxien, pirulin pan,
nere semie errotan.
Errota txikiñien klin-klan.
Botikario, kalendario,
hemen etxien zenbat hatz?
Bost hatz!"

Eta ebatu eitten jako eskutik. Ta gero berai, umiai, preguntau biher jako -- gurien txikitxue [da Jon], ta--: "Kosk ala min?" "Kosk" esaten badau, klak! Hola joten da. Ta!, fuerte, e? Ta aiii! Egundoko txilixue igual. Ta "min" esaten badau, ba, ta! holaxen ein. Ta hori, ba, asko eitten gauen umien artien.

4. Amandrea eta umeak

- **Erref:** ARR-002/018
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:18:50. **Bukatu:** 00:19:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Katak » Ume katak
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Amandrea umeekin beti abesten.

5. Ume-kanta ezaguna

- **Erref:** ARR-002/025
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:28:15. **Bukatu:** 00:28:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

"Joxe narras..."

Transkripzioa

"Joxe Narrasek dauko dendia beteta,
sagar ustelez dana beteta hantxe egoten da.
Harek saldu orduko topauko dau andria.
Kostako xako hareri kentzen ta zerbait ein [biharko da]."

Holakuek be amak kantetan eutsen, e?

6. Umetako jolasak garaiaren arabera

- **Erref:** ARR-002/029
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:31:05. **Bukatu:** 00:33:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Garizuma eta Errauts Eguna

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: tortolosak; txirikila. Garizuma garaian zertara jolasten zuten. Garizuma amaitzeko irrikan egoten ziren.</p>

Transkripzioa

- Eta tortolosetan eingo zenduen zuek.
- Bai, guk bai, asko.
- Neskak eta.
- Bai, eta gaiñera eukitten gittuen tortolos batzuk elegantiauek. Onenak apartau, ederrenak ta gero koloriek emoten geuntsen, pinttura berdie, urdiñe, hori papelakin pintteta gittuen, gorri-gorrixek. Galtzen bagauen pena bat, galtzen bagauen. Hain tortolotx ederrak, bat galtzen bagauen be oin bat falta juat.
- Eta kantuak eitxen zian, ez? Jolastu ahala kantatzen joaten zan: "apona bat edo asaje bat"-edo. Zela jolasten zan? Kantuak, zela jolasten zan hori? Ez ba alde zabaletik jausten zanian...
Bai, alde batera ta bestera eitten gauen.
- Eta zelan?
- Lehenengo ifinten zan zutirik, gero etzinde ta irebazteko buelta eindde. Hiru buelta tortolosai eitten jakuen. Baiña kantue ahaztute dauket.
- Eta zeozer, pelotaren bat edo zozer hartzen zan?
- Kanikie. Kanikie bota ta tortolosai buelta erain. Ta harei tortolosai erain biher dotsezun /biotsezun/ buelta ikusi barik, kanikie hartu biher zauen / bizauen/ ta. Ta politte e! Tortolosak poltsan elegante eukitten gittuen guk, euren zintxattugaz estutute tortolak jolin...
- Hori ze izaten zan, garizuman edo?
Bai ta zera be bai, garizuman txirikillan. Txirikillan be, txirikillak eitten gittuen ba egurrezko txirikillak, kurioso eindda e! Holako luzera bateko txirikillak. Ta danok juten

gitsen hola aldatza
euen leku batera eta amantalakin domeka arratsaldietan. Bestela ez gauen amantalik ibiltten eta. Txirikillan eitteko amantalak. Nik prima bat euki nauen artistie. Hak "de todas todas" hartzen zittuen.ta! Geuk bota biher e! Ba txandan eitten zan. Nik sarriten azertau be ez neban eitten txirikillan. Ta hak danak hartu. Harek Zubillagan bizi dan primi horrek. Joe, esaten nauen zelan hazi ditun ba honek neskatilla honek. Holan ule zurixe euken apur bat holakotxe lekuen ta danak e! Terrible zan hartzen. Ta gero merixendatxuek eta eitten gittuen. Txokolatie edo, lagunuen baten etxin. Galtzen auenak "a pagar". Gure ama koittae dirue ataraten. Ez zauen eukitten dirurik. Hamar zentimo emoteko be ez zauen eukitten ta.

- Eta esan dozu garizuman izeten zala?
- Garizuman eitten gauen.
- Eta zagaitxik garizuman?
- Ba ez dakit zegaittik. Desietan egoten gintzen garizumie akabetako. Gero hor taberna bat euen goixen ointxe be badau hor tabernie ta restauranak segiduten dau han, horrek akabau zien baiña. Bentanan ondun ifintten nauen gramolie ta danok hantxe dantzan, baiña guk eukitten gauen ilusiñue zera garizumie pasetako.
- Musikie hasteko?
- Musikie hasteko. Ta ordun dantzan eitten zan. Dantzan.

7. Umetako jolasak

- **Erref:** ARR-002/032
- **Iraupena:** 0:01:45. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:38:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: pote-poteka edo diez-beinteka.</p>

8. Umetako jolasak: kanikaka

- **Erref:** ARR-002/034
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:40:33. **Bukatu:** 00:41:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Kanikaka nola egiten zuten.</p>

Transkripzioa

- Eta kaniketan zelan eitten zan? Joko diferentiak zeren bi edo hiru klase, kaniketan? Edo zelan eitten zan?
- Ez. Nik beti ikusi dot... Potxoluak eitten [gauen]. Potxolo bat ein, lurrien- edo ptxolotxo bat eitten [gauen] ta haraxe azertau bihar zien. Ta urrindik ifiñi ta "tta!", ta barrura sartzen bazien, ha irabazitta euen. Kanpora juaten bazan, fuera!
- Bestiandako.

- Bestiendako. "Una canica", kanpora juaten bazan. Potxolora juaten bazan, noberena. Ta geu be kanikaka asko eindda gaz, e?

9. Gabonak

- **Erref:** ARR-002/035
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:41:50. **Bukatu:** 00:45:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

Hagina jausten zenean gorde egiten zen. Gabonetako opariak. Umetan zelan zelebratzen zituzten Gabonak.

10. "Txintxurrin"

- **Erref:** ARR-002/044
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:54:00. **Bukatu:** 00:54:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>"Txintxurrin" egiten zuten. Gurdiaren partikan egiten zen jolasa.</p>

11. "Kuku-miku"

- **Erref:** ARR-002/045
- **Iraupena:** 0:00:40. **Hasi:** 00:54:40. **Bukatu:** 00:55:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>"Kuku-miku".</p>

12. "Txikitxo polit hori..." kanta

- **Erref:** ARR-002/048
- **Iraupena:** 0:00:55. **Hasi:** 00:58:15. **Bukatu:** 00:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Ume kantak

Laburpena:

"Txikitxo polit hori..." kanta.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com